**Modo de recuperación: Red doméstica** edo **Red de itinerancia** hautatzeko aukera ematen du. Gero Manual hautatzen baduzu, MMS mezuen jakinarazpenak soilik jasoko dituzu; gero, zeuk erabakiko duzu osorik deskargatu nahi dituzun ala ez.

**Informe de entrega:** entregatzearen txostenak baimendu eta/edo eskatu nahi dituzun hautatzeko balio du.

**Informe de lectura:** hautatu irakurri izanaren jakinarazpenak onartu edo bidali nahi dituzun.

**Prioridad:** MMSen lehentasun-maila hauta dezakezu.

**Período de validez:** mezua mezu-zentroan biltegiratuta zenbat denboraz egongo den hautatzeko.

**Duración diapositiva:** diapositibak pantailan zenbat denboraz egongo diren hautatzeko balio du.

**Modo de creación:** mezu-modua hautatzeko aukera ematen du.

**Hora de entrega:** mezu bat bidaltzeko zenbat denbora falta den hautatzeko balio du.

**Centro MMS:** mezu-zentroaren xehetasunak idazteko balio du.

# Mezuak

## Beste doikuntza batzuk aldatzea

Ukitu , eta, ondoren, hautatu **Ajustes, Comunicación** menuan.

**Buzón de voz:** ukitu  ahots-postontziko zerbitzu bat gehitzeko. Jarri harremanetan zure sare-operadorearekin eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko.

**Mensaje de servicio:** zerbitzu-mezuak jaso edo blokeatu nahi dituzun hautatzeko balio du. Mezuen segurtasuna ere ezar dezakezu, bidaltzaile seguruen eta ez-seguruen zerrendak sortuta.

**Servicio de información:** jasotze-egoera, hizkuntza eta beste zenbait doikuntza hautatzeko balio du.





# Kamera

## Argazkiak azkar ateratzea

1 Arin sakatu  tekla, telefonoaren eskuinean dagoena.

2 Kameraren bisorea agertuko da pantailan.

3 Telefonoa horizontalean dela, jarri lentea argazkia atera nahi diozun horri begira.

4 Jarri telefonoa aurreikuspen-pantailan argazkia atera nahi diozun objektua ikusteko moduan.

5 Kamerak fokatzen duenean, irmo sakatu telefonoaren alboan dagoen  botoia edo pantailaren behealdeko koadro gorria, argazkia ateratzeko.

## Argazkia atera ondoren

Ateratako argazkia pantailan agertuko da. Irudiaren izena pantailaren behealdean agertuko da, eta, eskuinean, berriz, bost ikono egongo dira.



 Ukitu ikono hau galerian mugitzeko.

 Ukitu ikono hau argazkia mezu gisa, mezu elektroniko gisa edo Bluetooth bidez bidaltzeko. Ikus 36. orrialdea mezuak bidaltzeko moduari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, edo 121.a, Bluetooth bidez mezuak bola bidali eta jaso jakiteko.

 Sakatu ikono hau argazkia editatzeko.

 Ukitu ikono hau egin berri duzun argazkia pantailako irudi gisa jartzeko.

 Ukitu ikono hau egin berri duzun argazkia ezabatzeko, eta berretsi, **Sí** ukituta. Berriro bisorea agertuko da.

Ukitu ikono hau berehala beste argazki bat ateratzeko. Aurretik ateratako argazkia gorde egingo da.

## Bisorea ezagutzea




**Doikuntzak**: ukitu ikono hau doikuntzen menua irekitzeko. Ikus **Konfigurazio aurreratua erabiltzea**, 62. orrialdean, informazio gehiago eskuratzeko.

**Kamera-modua**: kamera modua hautatzeko.

**Bideo-modua**: ukitu ikono hori **bideo** modura aldatzeko.

**Atzera**: ukitu aukera hori pantaila inaktibora itzultzeko.

**Galeria**

**Distira**: ikus **Kontrastea doitzea**, 62. orrialdean.

**Kliskatzeko modua** ikus **Argazkia ateratzeko modu bat hautatzea**, 54. orrialdean.

**Argazkiak ateratzea**

**IRADOKIZUNA:** Aukerak agerrarazi ditzakezu pantaila ukituta. Segundo batzuk igarotzean desagertuko dira.

## Argazkia ateratzeko modu bat hautatzea

1 Ukitu eskuragarri dauden argazkia ateratzeko moduak irekitzeko.

2 Hautatu bi aukera hautako bat:

**Disparo normal:** aurrez ezarritako kliskatzeko modua da; ohiko moduan ateratzen ditu argazkiak, Argazkiak azkar ateratzea atalean deskribatzen den moduan.

**Disparo en ráfaga:** automatikoki 3, 6 edo 9 argazki bata bestearen atzetik oso azkar ateratzeko aukera ematen du.

## Kontrastea doitzea

Kontrasteak irudi baten argitasunaren eta iluntasunaren arteko aldea definitzen du. Kontraste gutxiko irudi bat lausoa izango da; kontraste handikoa, berriz, garbiagoa.

1 Toque .

2 Mugitu kontraste-adierazlea ezkerrerantz, irudi lausoagoa (esposizio gutxiagokoa) lortzeko; edo, bestela, eskuinerantz, irudi garbiagoa (kontraste handiagokoa) lortzeko.

## Kliskatze jarraituko modua erabiltzea

Etengabe kliskatzeko modua ezin hobea da mugitzen ari diren objektuei edo kirol-ekitaldiei argazkiak ateratzeko.

1 Ukitu eskuragarri dauden argazkia ateratzeko moduak irekitzeko, eta hautatu **Disparo en ráfaga.**

2 Hautatu segida bakoitzean zenbat argazki atera nahi dituzun.

3 Jarri atera nahi duzun hori bisorean, eta sakatu argazkia ateratzeko botoia, argazki bat ohiko moduan atera behar bazenu bezala.

4 Kamerak 3, 6 edo 9 argazki egingo ditu, azkar-azkar.

## Konfigurazio aurreratua erabiltzea

Bisorean, ukitu , konfigurazio aurreratuaren aukera guztiak irekitzeko.




### Aurrebistaren doikuntzak

**Tamaño:** argazkiaren neurria aldatzeko aukera ematen du, memorian espazio gutxiago hartzeko; kontaktu baterako neurri egokiarekin argazkiak ateratzeko aurrez ezarritako balioak hautatzeko ere balio du. Ikus **Irudiaren neurria aldatzea** atala, 57. orrialdean.

**Efecto de color:** hautatu kolore-tonu bat, egin nahi duzun argazkiari aplikatzeko. Ikus Kolore-efektu bat hautatzea, 57. orrialdean.

**Balance de blancos:** Auto, Incandescente, Soleado, Fluorescente edo Nublado aukerak daude.

**Modo noche:** leku ilunetarako egokia.

**Temporizador automático:**

Argazkia egiteko botoia sakatzen denetik argazkia egin aurreko unera arte dagoen denbora-tartea konfigura daiteke. Aukeratu denbora-tartea: **3 segundos, 5 segundos** edo **10 segundos.** Taldeko argazkietan zu zeu ere agertu nahi duzunerako egokia.

**Calidad:** aukera hauek dituzu: **Superfina, Fina eta Normal.** Zenbat eta kalitate hobea izan, orduan eta garbiagoak aterako dira argazkiak; fitxategien tamaina, ordea, handiagoa izango da, eta argazki gutxiago gorde ahal izango dituzu memorian.

**Modo de visualización: Pantalla completa** edo **Imagen completa** aukeratu daiteke. Pantalla moduan, baliteke irudia osorik ez ikustea.

**Otros ajustes**

**Memoria en uso:** argazkiak telefonoaren memorian edo kanpoko memorian gorde aukeratu dezakezu.

**Sonido obturador:** Obturadorearen hiru soinuetako bat hautatzeko.

**Pantalla con cuadrícula:** Aukera hauek dituzu: Desactivado, Cruz simple edo Cuadrícula de tres por tres.

**Reiniciar configuración:** kameraren doikuntza guztiak berrabiarazteko.

**IRADOKIZUNA:** Cámara funtziotik ateratzean, lehenespenez duen konfigurazio osoa berriro ezarriko da, irudiaren tamaina eta kalitatea izan ezik. Behar duzun lehenetsi gabeko konfigurazioa berriro ezarri beharko duzu, kolore-tonua, adibidez. egiazta ezazu, argazkia egin aurretik.

**IRADOKIZUNA:** Doikuntzen menua bisorearen gainean bistaratuko da; horrela, kolore-doikuntzak edo irudiaren kalitatea aldatzean, aldaketak ikusi ahal izango dituzu aurrebista-moduan, doikuntza-menuaren atzean.

## Irudiaren neurria aldatzea

Zenbat eta pixel gehiago izan, orduan eta tamaina handiagoa izango du fitxategiak, eta leku gehiago hartuko du memorian. Argazki gehiago gorde nahi baduzu, pixel kopurua alda dezakezu, fitxategien tamaina txikitzeko.

1 Bisorean, ukitu ⚙ goiko ezkerreko aldean.

2 Hautatu **Tamaño,** Vista previa menuan.

3 Hautatu pixel-balore bat, zenbakizko bost aukeren artetik ***(3M: 2048x1536,2M: 1600x1200,1M: 1280x960, 640x480,400*240(W), 320x240)*** edo aukeratu lehenespenez dagoen balorea:

   **Kontaktuak:** aukera ematen du, kamera konfiguratuta, telefonoko kontaktu bati eransteko moduko tamaina duen argazkia egiteko.

## Kolore-efektu bat hautatzea

1 Bisorean, ukitu ⚙ goiko ezkerreko aldean.

2 Hautatu **Efecto de color,** Vista previa menuan.

3 Bost kolore-tonu daude aukeran: **Desactivado, Blanco y negro, Negativo** edo **Sepia.**

4 Kolore-tonua aukeratu ondoren, menu hori automatikoki itxiko da, eta argazkia egiteko prest izango duzu kamera.

**IRADOKIZUNA:** Koloretan egindako argazki bat zuri-beltzera edo sepia kolorera alda dezakezu; ez, ordea, zuri-beltzean edo sepian egindakoa koloretara.

## Gordetako argazkiak ikustea

1 Cámara moduan godetako argazkiak eskuratu ditzakezu. Ukitu 🖼 eta argazki-galeria pantailan bistaratuko da.

# Bideokamera

## Bideo bat azkar egitea

1 Arin sakatu telefonoaren eskuinean dagoen kamera-tekla.

2 Bideo-modua aldatzeko, kameraren aurrebista-moduan ukitu kameraren ikonoa bisorean. Kameraren bisorea agertuko da pantailan.

3 Telefonoa horizontalean dela, jarri lentea bideoz grabatu nahi duzunari begira.

4 Grabazioari ekiteko, sakatu bideoa grabatzeko botoia. Edo sakatu botoi gorria pantailaren beheko aldean, eskuinean.

5 **Rec** agertuko da bisorearen goiko aldean, eta kontagailu bat beheko aldean, bideoaren iraupena ikusteko.

6 Bideoa eteteko, ukitu ; berriro grabatzen hasteko, hautatu .

7 Grabazioa gelditzeko, ukitu pantailan, edo sakatu berriro grabatzeko botoia.

## Bideoa grabatu ondoren

Irudi finko bat agertuko da pantailan, grabatutako bideoarena. Bideoaren izena pantailaren behealdean agertuko da, eta, eskuinean, berriz, bost ikono egongo dira.




Ukitu ikono hori, bideoa erreproduzitzeko.

Ukitu aurreko ikonoa, mezu, mezu elektroniko edo Bluetooth bidez bidaltzeko bideoa. Ikus 36. orrialdea mezuak bidaltzeko moduari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, edo 121.a, **Bluetooth bidez mezuak bola bidali eta jaso jakiteko**.

Sakatu ikono hau argazkia editatzeko.

Ukitu ikono hau, gordetako bidoen galeria ikusteko.

Ukitu ikono hau grabatu berri duzun bideoa ezabatzeko, eta berretsi, Sí ukituta. Berriro bisorea agertuko da.

Ukitu ikono hau berehala beste bideo bat grabatzeko. Grabatutako bideoa gorde egingo da.

# Bideokamera

## Bisorea ezagutzea



**Doikuntzak:** ukitu ikono hau doikuntzen menua irekitzeko. Ikus **Konfigurazio aurreratua erabiltzea**, 62. orrialdean, informazio gehiago eskuratzeko.

**Bideo-modua:** Bideo modua hautatzeko.

**Irudiaren tamaina**

**Telefonoaren memorian edo kanpo-memorian gordetzea**

**Atzera:** ukitu aukera hori pantaila inaktibora itzultzeko.

**Galeria**

**Distira:** ikus **Kontrastea doitzea**, 62. orrialdean.

**Bideoaren tamaina**

**Grabazioa etetea**

**Grabazioa hastea**

**Zooma:** Ukitu irudia handitzeko, edo , irudia txikitzeko.

**Bideo-modua:** ukitu ikono hori bideo modura aldatzeko.

**IRADOKIZUNA:** Bisorearen pantaila argiagoa izateko, sarbide azkarreko aukera guztiak itxi ditzakezu. Bisorearen erdialdea behin bakarrik sakatu behar duzu. Aukerak berreskuratzeko, ukitu pantaila berriro.

## Kontrastea doitzea

Kontrasteak irudi baten argitasunaren eta iluntasunaren arteko aldea definitzen du. Kontraste gutxiko irudi bat lausoa izango da; kontraste handikoa, berriz, garbiagoa.

1 Ukitu .

2 Mugitu kontraste-adierazlea ezkerrerantz, irudi lausoagoa (esposizio gutxiagokoa) lortzeko; edo, bestela, eskuinerantz, irudi garbiagoa (kontraste handiagokoa) lortzeko.

## Konfigurazio aurreratua erabiltzea

Bisorean, ukitu **Ajustes**, konfigurazio aurreratuaren aukerak irekitzeko.




### Aurrebistaren doikuntzak

**Tamaño:** bideoaren tamaina aldatzeko, memorian lekua aurreztu dadin. Ikus **Irudiaren neurria aldatzea** atala, 64. orrialdean.

**Efecto de color:** kolore-tonu bat hauta dezazun, egin nahi duzun bideoari aplikatzeko. Ikus **Kolore-efektu bat hautatzea**, 65. orrialdean.

**Balance de blancos:** bideoetan agertzen diren zuri guztiak errealistak izatea bermatzen du zurien balantzeak. Kamerak zurien balantzea behar bezala egokitu dezan, baliteke argi-kondizioak zehaztu beharra izatea. Hautatu **Auto, Incandescente, Soleado, Fluorescente** edo **Nublado.**

**Calidad:** hautatu **Súper fina, Fina** edo **Normal.** Zenbat eta kalitate hobea izan, orduan eta garbiagoa aterako da bideoa; fitxategien tamaina, ordea, handiagoa izango da, eta bideo gutxiago gorde ahal izango dituzu memorian.

**Duración:** bideoen iraupen-muga konfiguratzeko. Hautatu **Sin límite**; edo **MMS**, tamaina mugatzeko, bideoa MMS gisa bidali ahal izateko.

**Modo de visualización: Pantalla completa** edo **Imagen completa** aukeratu daiteke. Pantalla moduan, baliteke irudia osorik ez ikustea.

> **IRADOKIZUNA:** Si MMSaren iraupena hautatu behar baduzu; saiatu kalitate baxuko irudia aukeratzen, bideo luzeagoa egin ahal izan dezazun.

**Beste ezarpen batzuk**

**Memoria en uso:** argazkiak **Memoria del teléfono**n edo **Memoria externa**n gorde aukeratu dezakezu.

**Voz:** hautatu Silencio, bideo bat soinurik gabe grabatzeko.

**Reiniciar configuración:** bideokameraren doikuntza guztiak berrabiarazteko.

## Bideo-irudiaren neurria aldatzea

Zenbat eta pixel gehiago izan, orduan eta tamaina handiagoa izango du fitxategiak, eta leku gehiago hartuko du memorian. Telefonoan bideo gehiago gorde nahi baduzu, pixel-kopurua alda dezakezu, fitxategien tamaina txikitzeko.

1. Bisorean, ukitu goiko ezkerreko aldean.
2. Hautatu **Tamaño del vídeo**, Vista previa menuan.
3. Hautatu pixel-balio bat hiru aukera hauen artean:

   QVGA **320x240:** irudia txikiagoa da; beraz, fitxategia ere txikiagoa izango da. 24 fps-raino, erreprodukzio-moduan, eta 12 fps-raino, grabazio-moduan.

   QCIF **176x144:** irudia txikiena da; beraz, fitxategiaren tamaina ere txikiena izango da. 15 fps-raino, erreprodukzio-moduan.
4. Hautatu zer tamaina erabili nahi duzun.

> **IRADOKIZUNA:** bideo-formatua bihurtzeko software bat duzu KP500 mugikorrarekin datorren CDan.

# Bideokamera

## Kolore-tonu bat hautatzea

1 Bisorean, ukitu goiko ezkerreko aldean.

2 Hautatu **Efecto de color,** Ajustes menuan.

3 Bost kolore-tonu daude aukeran: **Desactivado** *(Normal)*, **Blanco y negro, Negativo** eta **Sepia.**

4 Ukitu erabili nahi duzun kolore-tonua.

**IRADOKIZUNA:** koloretan egindako bideo bat zuri-beltzera edo sepiara alda dezakezu; ez, ordea, zuri-beltzean edo sepian egindakoa koloretara.

## Gordetako bideoak ikustea

1 Bisorean, ukitu .

2 Pantailan, galeria agertuko da.

3 Ukitu behin ikusi nahi duzun bideoa, galeriaren aurrealdera ekartzeko.

4 Ukitu bideoa behin, erabat irekitzeko.





# Zure argazkiak eta bideoak

## Argazkiak eta bideoak ikustea

1 Ukitu kameraren aurrebistaren pantailan.

2 Pantailan, galeria agertuko da.

3 Ukitu bideoa edo argazkia bitan, erabat irekitzeko.

4 Bideoa erreproduzitzeko, ukitu . Une batez erreprodukzioa geldiarazteko, ukitu .




**IRADOKIZUNA:** mugitu ezkerrera edo eskuinera, beste argazki edo bideo batzuk ikusteko.

**IRADOKIZUNA:** argazki edo bideo bat ezabatzeko, ireki eta hautatu . Hautatu **Sí** berresteko.

## Zooma erabiltzea argazki bat ikustean

Handitzeko, sakatu behin eta berriro. Txikitzeko, sakatu . Erabili beheko eskuineko izkinako koadro txikia, fokatze-eremua mugitzeko.

## Bolumena doitzea bideo bat ikustean

Bideo bat erreproduzitzen ari dela audio-bolumena doitzeko, mugitu goiko markatzailea pantailaren ezkerraldeko bolumen-barran gora eta behera.

# Zure argazkiak eta bideoak

## Bideo-irudi baten argazkia egitea

1 Hautatu zer bideoren irudia grabatu nahi duzun.
2 Ukitu ||, irudi bihurtu nahi duzun bideoaren sekuentzia une batez geratzeko, eta ukitu pantailaren eskuinaldea, aukeren menua irekitzeko.
3 Opciones menuan, hautatu .
4 Irudia pantailan agertuko da, esleitu zaion irudi-izenaz.
5 Ukitu irudia, eta, ondoren , galeriara itzultzeko.
6 Irudia Álbum multimedia karpetan gordeko da, eta galerian agertuko da. Galeriatik atera eta berriro ireki beharko duzu irudia agertzeko.

**OHARRA:**
zenbait funtziok ez dute behar bezala funtzionatuko, multimedia-fitxategia telefonoan ez bada grabatu.

## Argazkiak ikustea diapositiba-aurkezpen gisa

Diapositibak aurkezteko moduak banaka bistaratzen ditu galeriako argazkiak, diapositiba-aurkezpen gisa. Bideoak ezin dira ikusi diapositiba-aurkezpen gisa.

1 Ukitu bitan diapositiba-aurkezpenaren hasieran jarri nahi duzun argazkia, irekitzeko.
2 Hautatu .
3 Diapositiba-aurkezpena abiaraziko da.



Aukera hauek dituzte diapositibek:

Ukitu ikono hau, hurrengo argazkira joateko.

Ukitu ikono hau, diapositiba-aurkezpena une batez argazki jakin batean geldiarazteko.

Ukitu berriro, erreproduzitzeari berriz ekiteko.

Ukitu hau, aurkezpena bizkortzeko edo makaltzeko.

## Argazki bat ezartzea pantailaren atzeko plano gisa

1 Ukitu bitan pantailaren hondo gisa ezarri nahi duzun argazkia, irekitzeko. Jarri telefonoa horizontalki.
2 Ukitu pantailaren eskuinaldea, aukeren menua irekitzeko.
3 Ukitu .
4 Pantaila argazki-modura pasatuko da. Orduan, argazkiaren tamaina aldatu ahal izango duzu.
5 Argazkiarekin gustura bazaude, ukitu **Fijar.**

## Argazkiak editatzea

Gauza interesgarri asko egin ditzakezu argazkiekin, aldatzeko, hobetzeko eta pixka bat animatzeko.

1 Ireki editatu nahi duzun argazkia, eta ukitu , aukerak azal daitezen.

2 Ukitu ikono hauek argazkia egokitzeko:

Argazkia mozteko. Hautatu argazkia lauki-forman edo biribilean moztu nahi duzun, eta mugitu behatza pantailan, eremua hautatzeko.

Esku hutsez marrazteko eta linearen lodiera hautatzeko, lau aukeren bidez, eta erabili nahi duzun kolorea aukeratzeko.

Argazkiaren gainean idazteko. Ikus **Argazki bati testua gehitzea**, 70. orrialdean.

Argazkia zigiluekin apaintzeko. Hautatu erabilgarri dauden zigiluak, eta ukitu argazkia zigilua jarri nahi duzun lekuan.

Marraztutako lerroa ezabatzeko.

Argazkian egindako aldaketak gordetzeko. Aldatu hori, **Archivo original** fitxategian edo **Nuevo archivo** fitxategian aldaketak gordetzeko. **Nuevo archivo** hautatzen baduzu, sartu fitxategi-izena.

Argazkiari egindako azken aldaketa edo aplikatutako azken efektua (**Efecto**) desegiteko.

Ukitu aukera hau beste efektu-aukera batzuk irekitzeko, (**Rotar** barne). Beste edizio-aukera aurreratu batzuk ere badaude. Ikus **Cambiar tamaño, Transformación, Acento de color, Añadir imágenes** etab.

Ikus **Argazki bati efektua gehitzea**, 71. orrialdean.



Ukitu ikono hau galeriara itzultzeko.

## Argazki bati testua gehitzea

1 Edizio-pantailan, ukitu T.

2 hautatu **Firma** markorik gabeko testu bat gehitzeko, edo hautatu bunbuilo-formetako bat.

3 Idatzi testua teklatuarekin eta sakatu **Aceptar**.

4 Testua mugitzeko, ukitu eta eraman nahi duzun lekura.

## Argazki bati efektua gehitzea

1 Edizio-pantailan, ukitu [icon].

2 Argazkiari aplikatzeko sei aukera hauek dituzu: **Embellecedor de rostro:** aukera ematen du irudian aurpegi bat aukeratu eta hura automatikoki hobetzeko.

**Efecto túnel:** lomografia-efektua.

**Negativo en color:** negatiboaren efektua, koloretan.

**Blanco y negro:** zuri-beltz efektua.

**Sepia:** sepia-efektua.

**Difuminado:** efektu lausotua emateko.

**Nitidez:** argazki-fokatzearen araztasuna aldatzeko, lerratu markatzailea barran zehar. Aldaketak aplikatzeko, hautatu **OK** ikonoa; aldaketak ezeztatzeko, hautatu [icon].

**Difuminado en mosaico:** ukitu aukera hau, argazkiari mosaiko lausotuaren efektua emateko.

**Pintura al óleo:** olio-margoaren efektua.

**Esbozo:** argazkiari zirriborro-efektua emateko.

**Relieve:** erliebe-efektua.

**Solarizar:** argitasun-efektua aldatzeko.

**Vivo:** argitasun- eta distira-efektua.

**Luz de luna:** argia aldatu eta ilargiarena bezalakoa emateko.

**Antiguo:** antzinako argazkien efektua.

**Resplandor:** argi-izpi baten efektua.

**Dibujos animados:** marrazki bizidunen efektua.

**Acuarela:** akuarela-efektua emateko.

3 efektua desegiteko, ukitu **Deshacer**.

**IRADOKIZUNA:** argazki bati efektu bat baino gehiago aplika diezaiokezu, koloretakoak izan ezik.

## Argazki bat aldatzea

argazkia eraldatzeko aukera egokia da lagunen aurpegiera aldatzeko.

O argazkia distorsionatuta, efektu artistikoa lortzeko.

1 Edizio-pantailan, ukitu [icon].

2 Hautatu **Transformación** eta lau gurutze agertuko dira argazkian.

3 Lerratu gurutzeak argazkian, eraldatu nahi duzun zatiraino. Adibidez, aurpegi bat eraldatu nahi baduzu, jarri gurutze bat begi bakoitzaren kanpoaldean, eta beste bat ezpainen bi alboetan.

4 Adierazi nola eraldatu nahi duzun argazkia, dagokion aurpegia hautatuta.

5 Hautatu **OK**, aldaketak gordetzeko.

# Zure argazkiak eta bideoak

## Argazki bati kolore-puntu bat gehitzea

1 Edizio-pantailan, ukitu .

2 Hautatu **Acento de color.**

3 Hautatu argazkiaren zati bat. Kolore bera edo antzekoa dagoen eremua marra batez inguratua agertuko da.

Adibidez, pertsona baten ilea edo jertsearen kolorea.

4 Ukitu **OK**.

5 Argazkiaren kolore guztiak ezabatuko dira, kolorea nabarmentzeko markatutako eremua izan ezik.

6 Nabarmendutakoaren intentsitatea aldatu dezakezu, markatzailea intentsitate-barran lerratuta.

7 Hautatu **Guardar,** aldaketak gordetzeko.

## Argazki baten koloreak txandakatzea

1 Edizio-pantailan, ukitu .

2 Hautatu **Alternancia de color.**

3 Hautatu argazkiaren zati bat. Kolore bera edo antzekoa dagoen eremua marra batez inguratua agertuko da.

Adibidez, pertsona baten ilea edo jertsearen kolorea.

4 Hautatu kolore bat.

5 Sakatu **OK**.

6 Hautatutako kolorea aplikatuko zaio kolorea aldatu nahi diozun argazki-zatiari.

7 Hautatu **Guardar**, aldaketak gordetzeko.

## Bideoaren iraupena laburtzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu pantaila, aukerak ager daitezen.

2 Ukitu , eta, ondoren, hautatu **Recortar**.

3 Ukitu ▶ eta markatu hasiera-nahiz amaiera-puntu berriak, ikonoarekin .

4 Ukitu **Reproducir corte,** mozketa berria gustuko duzula egiaztatzeko.

5 Ukitu **Guardar** edo , galeriara itzuli eta aldaketak ezabatzeko.




## Bi bideo bateratzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu pantaila, aukerak ager daitezen.

2 Hautatu eta aukeratu **Fusión de vídeo.**

3 **Mis cosas** karpeta irekiko da; orduan, hautatu **Mis vídeos** edo **Mi tarjeta de memoria** *(sartuta egonez gero)*. Hautatu bateratu nahi duzun bideoa, eta ukitu **Selec.**

4 Ukitu argazkia eta lerratu bideoaren amaiera edo hasieraraino.

5 Ukitu **Efecto,** bideoak bateratzeko modua hautatzeko: **Ninguno, Panorámico, Oval, Revelar, Tapar, Tablr. revis., Fundir, Dividido** edo **Efecto diamante.**

6 Bateratutako bideo berria gordetzeko, sakatu **Guardar** eta, ondoren, **Sí.** Hautatu aldaketak non gorde nahi dituzun: jatorrizko fitxategian edo fitxategi berri gisa.

7 Jarraitu urrats horiek beste bideo batzuk bateratzeko ere.

## Argazki bat eta bideo bat bateratzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu pantaila, aukerak ager daitezen.

2 Hautatu eta aukeratu **Fusión de imagen.**

3 **Mis cosas** karpeta irekiko da; orduan, hautatu **Mis imágenes** edo **Mi tarjeta de memoria** (sartuta egonez gero). Hautatu bideoarekin bateratu nahi duzun argazkia, eta ukitu **Selec.**

4 Ukitu argazkia eta lerratu bideoaren amaiera edo hasieraraino.

5 Ukitu **Efecto,** bideoa eta argazkia bateratzeko modua hautatzeko: **Ninguno, Panorámico, Oval, Revelar, Tapar, Tablr. revis., Fundir, Dividido edo Efecto diamante.**

6 Sakatu **Guardar** eta, ondoren, **Sí.** Hautatu aldaketak non gorde nahi dituzun: jatorrizko fitxategian edo fitxategi berri gisa.

7 Jarraitu urrats horiek beste argazki batzuk bateratzeko ere.

## Bideo bati testua gehitzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu pantaila, aukerak ager daitezen.

2 Hautatu eta aukeratu **Superposición de texto.**

3 Idatzi testua teklatuarekin eta sakatu **Ejecutado.**

4 Ukitu eta markatu ikonoarekin testua noiz agertzea nahi duzun.

5 Ukitu testua agertzea nahi duzun pantaila-eremua.




6 Ukitu testua noiz desagertzea nahi duzun markatzeko.

7 Ukitu **Previsualizar,** testuaren gainjartzea gustuko duzula egiaztatzeko.

8 Sakatu **Guardar** eta, ondoren, **Sí.** Hautatu aldaketak non gorde nahi dituzun: jatorrizko fitxategian edo fitxategi berri gisa.

9 Jarraitu urrats horiek testua gehitzeko ere.

## Argazki bat gainjartzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu pantaila, aukerak ager daitezen.

2 Hautatu eta aukeratu **Superposición de imagen.**

3 **Mis cosas** karpeta irekiko da; orduan, hautatu **Mis imágenes** edo **Mi tarjeta de memoria** (sartuta egonez gero). Hautatu bideoa gainjarri nahi diozun argazkia, eta ukitu **Seleccionar.**

4 Ukitu eta markatu ikonoarekin argazkia noiz agertzea nahi duzun.

5 Ukitu argazkia agertzea nahi duzun pantaila-eremua. Argazkia handiegia bada, pantaila osoari gainjarriko zaio, ez hautatutako eremuari bakarrik.

6 Ukitu argazkia noiz desagertzea nahi duzun markatzeko.

7 Ukitu **Previsualizar,** argazkiaren gainjartzea gustuko duzula egiaztatzeko.

8 Sakatu **Guardar** eta, ondoren, **Sí.** Hautatu aldaketak non gorde nahi dituzun: jatorrizko fitxategian edo fitxategi berri gisa.

9 Jarraitu urrats horiek argazkiak gehitzeko ere.

## Ahots-grabazio bat gehitzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu pantaila, aukerak ager daitezen.

2 Hautatu eta aukeratu **Grabación de voz.**

3 Jatorrizko audio-fitxategiaren kalitateari eragingo dio ahots-grabazio batek. Ukitu **Sí** jarraitzeko.

4 Ukitu bideoa ikusteko. Ahotsa grabatu nahi duzun zatira iristean, sakatu .




5 Sakatu edo grabazioa eta erreprodukzioa gelditzeko.

6 Ukitu **Previsualizar** ahots-grabazioarekin gustura zaudela egiaztatzeko.

7 Ukitu **Guardar** eta, ondoren, **Sí**, aldaketak gordetzeko. Hautatu aldaketak non gorde nahi dituzun: jatorrizko fitxategian edo fitxategi berri gisa.

8 Errepikatu pauso horiek bideoari ahots-grabazio gehiago gehitzeko.

## Bideoari soinu-banda gehitzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu pantaila, aukerak ager daitezen.

2 Hautatu eta aukeratu **Doblaje de audio.**

3 **Mis cosas** karpeta irekiko da; orduan, hautatu **Mis sonidos** edo **Mi tarjeta de memoria** (sartuta egonez gero). Hautatu zer pista gehitu nahi diozun bideoari, eta ukitu **Selec.**

4 Bideoaren jatorrizko audioa ezabatu egingo da. Ukitu **Sí** jarraitzeko.

5 Audioa bideoa baino laburragoa bada, hautatu zenbat aldiz erreproduzitu nahi duzun: **Una vez** edo **Repetir.**

6 Hautatu aldaketak non gorde nahi dituzun: jatorrizko fitxategian edo fitxategi berri gisa.

## Bideoaren abiadura aldatzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu pantaila, aukerak ager daitezen.

2 Hautatu eta aukeratu **Escala temporal.**

3 Hautatu lau abiadura-aukeretako bat: **x4, x2, x1/4** edo **x1/2.**

4 Hautatu aldaketak non gorde nahi dituzun: jatorrizko fitxategian edo fitxategi berri gisa.

**OHARRA :** 3gp bideo-fitxategiak soilik edita daitezke.



Telefonoaren memorian edozein multimedia-fitxategi gorde dezakezu, irudi, soinu, bideo eta joko guztietara erraz sartzeko. Fitxategiak memoria-txartel batean ere gorde ditzakezu. Memoria-txartela erabiltzearen abantaila da telefonoaren memoriako espazioa hustu dezakezula. Multimedia-menura sartzeko, ukitu , eta, gero, . Ukitu multimedia-fitxategi guztiak biltegiratzeko karpeta-zerrenda bat irekitzeko.

## Irudiak deskargatzea

**Mis imágenes** Ukitu irudiak minuaturan ikusi beharrean zerrenda ikusteko.

## Mis imágenes-eko aukeren menuak

**Mis imágenes**-en eskuragarri dauden aukerak hautatutako irudi-motaren araberakoak dira. Telefonoaren kamerarekin egindako irudientzat aukera guztiak daude eskuragarri; aurrez ezarritako irudientzat, berriz, **Ordenar por, Ver lista, Información de la carpeta.** eta **Administrador de memoria** soilik**.**

**Enviar:** irudia lagun bati bidaltzeko.

**Mover:** irudi bat telefonoaren memoriatik memoria-txartel batera aldatzeko, eta alderantziz.

**Copiar:** irudi bat telefonoaren memoriatik memoria-txartel batera kopiatzeko, eta alderantziz.

**Borrar:** irudi bat ezabatzeko.

**Renombrar:** irudi bati izena aldatzeko.

**Imprimir:** hautatutako irudia inprimagailu bidez inprimatzeko.

**Crear nueva carpeta:** Mis imágenes karpetaren barruan karpeta berri bat sortzeko.

**Present. diapos.:** diapositiba-aurkezpen bat hasteko.

**Ver lista/Ver cuadrícula:** irudiak lauki-sare batean edo zerrenda gisa ikusteko.

**Información de la carpeta:** karpetaren izena, neurria eta data, eta barruan duen fitxategi- eta azpikarpeta-kopurua ikusteko balio du.

**Administrador de memoria:** memoriaren egoera erakusten du.

**Eliminar todas:** irudi guztiak ezabatzeko aukera ematen du.

## Argazki bat bidaltzea

1 Ukitu , eta, gero, .

2 Ukitu , eta, gero, hautatu **Mis imágenes.**

3 Ukitu **Enviar** eta hautatu **Mensaje, Email** edo **Datos de Bluetooth.**

4 **Mensaje** edo **Email** hautatzen baduzu, argazkia mezuari eransten zaio; mezu hori ohi bezala idatz eta bidal daiteke. **Bluetooth** hautatzen baduzu, Bluetootha aktibatzeko eskatuko dizu, eta telefonoak irudia bidaltzeko gailu bat bilatuko du.

## Irudi bat erabiltzea

Horma-paper eta pantaila-babesle gisa erabili nahi dituzun irudiak hauta ditzakezu, bai eta kontaktu bat identifikatzeko ere.

1 Ukitu , eta, gero, .

2 Ukitu , eta, gero, hautatu **Mis imágenes.**

3 Hautatu irudi bat eta ukitu

4 Ukitu **Usar como**, eta hautatu aukeretako bat:

**Fondo de pantalla:** pantaila inaktiboráko atzealdea definitzeko balio du.

**Imagen de contactos:** kontaktu-zerrendako pertsona jakin bati irudi bat esleitzeko balio du, irudi hori ager dadin pertsona horrek deitzen dizunean.

**Imagen de inicio:** telefonoa piztean agertzeko irudi bat ezartzeko balio du.

**Imagen de apagado:** telefonoa itzaltzean agertzeko irudi bat ezartzeko balio du.

### Irudi bat inprimatzea

1 Ukitu , eta, gero, .

2 Ukitu , eta, gero, hautatu **Mis imágenes.**

3 Hautatu irudi bat eta ukitu

4 Ukitu **Imprimir**, eta, jarraian, hautatu **Bluetooth** edo **PictBridge.**

**IRADOKIZUNA:** Bluetooth bidez edo PictBridge-rekin bateragarria den inprimagailu batera konektatuta inprima dezakezu.

### Irudi bat mugitzea edo kopiatzea

Irudi bat telefonoaren memoriatik memoria-txartel batera mugi edo kopia dezakezu, eta alderantziz. Funtzio hori baliagarria da bi memorietako bateko espazioa husteko, edo irudiak ez galtzeko.

1 Ukitu , eta, gero, .

2 Ukitu , eta, gero, hautatu **Mis imágenes.**

3 Ukitu , eta, gero, hautatu **Mover** edo **Copiar**.

4 Irudiak hautatu edo desautatu ditzakezu bata bestearen atzetik ukituta. Hautatu mugitu edo kopiatu nahi duzun irudia, eta ukitu **Copiar/Mover.**

### Diapositiba-aurkezpen bat sortzea

Telefonoko irudi guztiak ikusi edo arakatu nahi badituzu, diapositiba-aurkezpen bat sor dezakezu, irudi guztiak itxi eta ireki beharrik ez izateko.

1 Ukitu , eta, gero, .

2 Ukitu , eta, gero, hautatu **Mis imágenes.**

3 Hautatu hasierako irudi bat aurkezpen automatikorako.

4 Ukitu  eta, ondoren, **Modo diapositivas.**

### Soinuak

**Mis sonidos** karpetan deskargatutako soinuak, aurrez ezarritako soinuak eta ahots-grabazioak daude. Hortik soinuak administratu, bidali edo dei-tonu gisa ezar ditzakezu.

### Soinu bat erabiltzea

1 Ukitu , eta, gero, .

2 Ukitu , eta, gero, hautatu **Mis sonidos**.

3 Hautatu **Sonidos predeterminados** edo **Grabadora de voz.**

4 Hautatu soinu bat, eta erreproduzitzen hasiko da.

5 Ukitu  , eta hautatu **Usar como**.

6 Hautatu **Tono de llamada, Tono de mensaje, Tono de inicio** edo **Tono de apagado.**

## Bideoak

**Mis vídeos** karpetan, telefonoarekin deskargatutako eta grabatutako bideoen zerrenda agertzen da. Bideo bat ikustea

1. Ukitu , eta, gero, .
2. Ukitu , eta, gero, hautatu **Mis vídeos**.
3. Hautatu erreproduzitu nahi duzun bideoa.

## Bideo bat geldituta dagoela aukerak erabiltzea

Ukitu  gelditutako moduan, eta hautatu hauetako bat:

**Capturar:** izoztutako fotograma irudi gisa hartzeko aukera ematen du.

**Enviar:** bideoa mezu batean edo Bluetooth bidez bidaltzeko aukera ematen du.

**Borrar:** bideoa ezabatzeko balio du.

**Editar:** bideoa editatzeko balio du.

**Info. archivo:** izenaren, tamainaren, dataren, orduaren, motaren, iraupenaren, neurriaren, babesaren eta copyrightaren xehetasunak ikusteko balio du.

## Bideoklip bat bidaltzea

1. Hautatu irudi bat eta ukitu .
2. Ukitu **Enviar** eta hautatu **Mensaje, Email** edo **Bluetooth.**
3. **Mensaje** edo **Email** hautatzen baduzu, bideoklipa mezuari erantsiko zaio, eta ohi bezala idatzi eta bidali ahal izango duzu. **Bluetooth** hautatzen baduzu, Bluetootha aktibatzeko eskatuko dizu, eta telefonoak bideoa bidaltzeko gailu bat bilatuko du.

## Bideoaren aukera-menua erabiltzea

**Mis vídeos** karpetan aukera hauek hauta ditzakezu: **Enviar:** lagun bati bideo bat bidaltzeko aukera ematen du.



**Mover:** bideoklip bat telefonoaren memoriatik memoria-txartel batera eta alderantziz mugitzeko aukera ematen du.

**Copiar:** bideoklip bat telefonoaren memoriatik memoria-txartel batera eta alderantziz kopiatzeko aukera ematen du.

**Eliminar:** bideo bat ezabatzeko aukera ematen du.

**Renombrar:** bideoari izena aldatezko balio du.

**Crear nueva carpeta: Mis vídeos** karpetan karpeta berri bat sortzeko aukera ematen du.

**Ordenar por:** irudiak dataren, motaren edo izenaren arabera antolatzeko balio du.

**Ver lista/Ver cuadrícula:** irudiak lauki-sare batean edo zerrenda gisa ikusteko balio du.

**Información de la carpeta:** karpetaren izena, neurria eta data eta barruan duen fitxategi- eta azpikarpeta-kopurua ikusteko aukera ematen du.

**Administrador de memoria:** memoriaren egoera erakusten du.

**Eliminar todos:** bideo guztiak ezabatzeko balio du.

## Jokoak eta aplikazioak

Zure telefonoan joko eta aplikazio berriak instala ditzakezu, aisialdian jolasteko.

## Joko edo aplikazio bat instalatzea tokiko instalazioaren bidez

1. Ukitu , eta, gero, .
2. Ukitu  eta **Otros** edo **Mi tarjeta de memoria,** kanpoko memoria bat sartu baduzu.
3. Hautatu instalatu nahi duzun fitxategia *(*.jad edo *.jar)*, eta sakatu **Instalar** komandoa. Aplikazio bat instalatuko da.

   **OHARRA:** jad fitxategiak bere jar fitxategia izan behar luke.

## Joko batean aritzea

1 Ukitu , eta, gero, .
2 Ukitu , eta, gero, hautatu **Mis juegos y aplicaciones.**
3 Ireki Juegos karpeta, eta ukitu erabili nahi duzun jokoa.

## Jokoen aukera-menua erabiltzea

**Juegos** karpetan ukitzean, aukera hauek izango dituzu:

**Eliminar:** fitxategi bat ezabatzeko.

**Crear nueva carpeta: Mis juegos y aplicaciones** atalean karpeta berri bat sortzeko.

**Cambiar nombre:** fitxategiaren izena aldatzeko.

**Mover:** fitxategi bat telefonoaren memoriatik memoria-txartel batera eta alderantziz eramateko.

**Info. archivo:** izenaren, tamainaren, dataren, orduaren, motaren, iraupenaren, neurriaren, babesaren eta copyrightaren xehetasunak ikusteko.

**Ordenar por:** jokoak eta aplikazioak **Fecha, Tamaño** edo **Permisos establecidos por nombre** aukeren arabera ordenatzeko.

**Administrador de memoria:** memoriaren egoera erakusten du.

**Borrar todos:** fitxategi guztiak ezabatzeko.

## Dokumentuak

Documentos menuan, dokumentu-fitxategi guztiak ikus ditzakezu. Handik, Excel, PowerPoint, Word, Texto eta PDF fitxategiak ikus ditzakezu.







## Telefonora fitxategi bat transferitzea

Bluetootha izango da, ziur asko, fitxategi bat ordenagailutik telefonora transferitzeko erarik errazena. Halaber, LG PC Suite sinkronizazio-kablearekin erabil dezakezu. Informazio gehiago nahi baduzu, begiratu 105. orrialdean. Fitxategi bat Bluetooth bidez transferitzeko.

1 Ziurtatu telefonoak eta ordenagailuak Bluetootha aktibatua dutela, eta elkarrengandik hurbil daudela.
2 Erabili ordenagailua, fitxategia Bluetooth bidez bidaltzeko.
3 Fitxategia bidalitakoan, telefonoan onartu behar duzu, Sí sakatuz.
4 Fitxategiak **Documentos** edo **Otros** karpetan agertu behar luke.

## Fitxategi bat ikustea

1 Ukitu , eta, gero, .
2 Ukitu eta, ondoren, **Documentos.**
3 Hautatu dokumentu bat, eta ukitu **Ver**.

## Beste zenbait

Irudiak, soinuak, bideoak, jokoak nahiz aplikazioak ez diren fitxategiak gordetzeko erabiltzen da **Otros** karpeta. **Documentos** karpeta bezalaxe erabitzen da.

Ordenagailutik telefonora fitxategiak transferitzean, baliteke **Otros** karpetan agertzea, **Documentos** karpetan agertu beharrean.

Hala gertatu bada, lekuz alda ditzakezu.

**Otros** karpetatik **Documentos** karpetara fitxategiak eramateko:

1 Ukitu , eta, gero, .
2 Ukitu ondoren, **Otros**.

**3** Hautatu fitxategi bat eta ukitu .

**4** Ukitu **Mover**, eta hautatu helburuko karpeta zerrendan, geziaren ikonoa ukituta. Transferentzia osatzen denean, **Movido** mezua agertuko da pantailan.

## Film bat sortzea

**1** Ukitu , eta, gero, .

**2** Ukitu  *(Muvee studio)*. Ukitu  irudi bat gehitzeko. Markatu gehitu nahi dituzun irudien egiaztapen-laukitxoa, eta, ondoren, hautatu **Insertar.**

**4** Ukitu Estilo etiketa, Estilo Muvee hautatzeko. Ukitu  gordetako ahots-grabazioei soinua aldatzeko.

6 Ukitu  sortu duzuna ikusteko.

**7** Ukitu  eta, ondoren, **Ordenar**, ordena sortzeko.

**8** Ukitu , eta, ondoren, **Guardar ubicación**, filma non gorde hautatzeko.




## Musika

LG KP500ek musika-erreproduzitzailea du, gogokoen dituzun abestiak entzun ditzazun. Musika-erreproduzitzailera sartzeko, ukitu , ondoren, , eta, azkenik, . Hortik hainbat karpetatara sar zaitezke:

***Último reproducido:*** orain gutxi erreproduzitutako abesti guztiak ikusteko balio du.

***Todas las pistas:*** telefonoaren abesti guztiak ditu.

***Artistas:*** artistaren arabera bilduman mugitzeko aukera ematen du.

***Álbumes:*** albumaren arabera bilduman mugitzeko aukera ematen du.

***Géneros:*** generoaren arabera bilduman mugitzeko aukera ematen du.

***Listas reproducción:*** sortu dituzun erreprodukzio-zerrenda guztiak biltzen ditu.

***Pistas aleatorias:*** musika ausazko ordenan entzuteko aukera ematen du.

## Telefonora musika transferitzea

Telefonora musika transferitzeko modurik errazenak Bluetootha eta sinkronizazio-kablea dira. LG PC Suite ere erabil dezakezu. Informazio gehiago nahi baduzu, begiratu 105. orrialdean. Fitxategi bat Bluetooth bidez transferitzeko.

**1** Egiaztatu bi gailuek Bluetootha aktibatuta dutela, eta hurbil daudela.

**2** Hautatu musika-fitxategi bat beste gailuan, eta bidali Bluetooth bidez.

**3** Fitxategia bidalitakoan, telefonoan onartu behar duzu, Sí sakatuz.

**4** Fitxategiak hemen agertu behar luke: **Música > Todas las pistas.**

## Abesti bat erreproduzitzea

1 Ukitu , eta, gero, .

2 Ukitu , eta, gero, **Todas las pistas.**

3 Hautatu erreproduzitu nahi duzun abestia.

4 Ukitu , abestia gelditzeko.

5 Ukitu , hurrengo abestira joateko.

6 Ukitu , aurreko abestira joateko.

7 Ukitu , **Música** menura joateko.




## Musika-erreprodukzioaren aukerak erabiltzea

Ukitu  eta hautatu eta aukera hauetako bat:

**Minimizar:** aukera ematen du musika-erreproduzitzailea gelditzeko, telefonoa erabili ahal izateko.

**Info. archivo:** izenaren, tamainaren, dataren, orduaren, motaren, iraupenaren, babesaren eta copyrightaren xehetasunak ikusteko balio du.

**Enviar:** abestia mezu batean edo Bluetooth bidez bidaltzeko aukera ematen du.

**Usar como:** abestia dei-tonu, bideo-tonu, mezu-tonu, hasiera-tonu edo itzaltzeko tonu gisa erabil daiteke.

## Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea

Erreprodukzio-zerrendak sor ditzakezu, **Todas las pistas** karpetatik abesti-sorta bat hautatuz.

1 Ukitu , eta, gero, .

2 Ukitu , eta, gero, **Listas de reproducción.**

3 Ukitu **Añadir nueva lista de reproducción,** jarri erreprodukzio-zerrendaren izena eta ukitu **Guardar.**

4 **Todas las pistas** karpetan telefonoaren abesti guztiak bistaratuko dira. Ukitu erreprodukzio-zerrendan gorde nahi dituzun abesti guztiak; izenen ondoan egiaztatze-marka agertuko da.

5 Ukitu **Ejecutado**.

## Erreprodukzio-zerrenda bat editatzea

Zenbaitetan, abestia berriak gehitu nahi izango dituzu, edo erreprodukzio-zerrendako zenbait ezabatu. Halakoetan, erreprodukzio-zerrenda edita dezakezu.

1 Ukitu , eta, gero, .

2 Ukitu , eta, gero, **Listas de reproducción.**

3 Hautatu erreprodukzio-zerrenda bat.

4 Ukitu ▤ , eta hautatu: **Añadir canciones nuevas:** erreprodukzio-zerrendan abestiak gehitzeko. Joan nahi duzun abestira, eta ukitu **Aceptar.**

**Eliminar:** erreprodukzio-zerrendako abesti bat ezabatzeko. Hautatu **Sí** berresteko.

**Info. memoria:** Memoriaren egoera ikusteko

**Eliminar todas:** erreprodukzio-zerrendako abesti guztiak ezabatzeko.

## Erreprodukzio-zerrenda bat ezabatzea

1 Ukitu , eta, gero, **Entretenimiento**.

2 Ukitu **Música**, eta, gero, **Listas de reproducción.**

3 Ukitu ▤ eta, gero, **Eliminar** edo **Eliminar todas,** erreprodukzio-zerrenda guztiak ezabatzeko.

## Irratia erabiltzea

FM irrati-funtzioa du LG KP500 telefonoak, zure kate gustukoenak sintonizatu eta mugitzen ari zarela entzuteko.

**OHARRA :** irratia entzuteko, entzungailuak erabili behar dituzu. Sartu entzungailuetarako hartunean (kargagailurako berbera)

## Emisorak bilatzea

Telefonoan kateak sintoniza ditzakezu, eskuz edo automatikoki bilatuta. Berariazko kanal-zenbakietan gordeko dira, berriro sintonizatu behar ez izateko. 50 irrati-kanal ere gorde ditzakezu. Lehenik eta behin, entzungailua telefonora konektatu behar duzu, honek antena gisa dihardu eta.

### Kateak automatikoki bilatzeko

1 Ukitu , eta, gero, .

2 Ukitu , eta, gero, ▤.

3 Ukitu **Exploración automática**. Aurkitutako kateak telefonoaren kanal bati esleituko zaizkio automatikoki.

**OHARRA :** Eskuz ere sintoniza dezakezu katea, ◀ eta ▶ erabiliz (irrati-maiztasunaren ondoan agertzen dira). ◀ eta ▶ tarte batez sakatu, eta kateak automatikoki aurkituko ditu.

## Kateak berrezartzea

1 Ukitu , eta, gero, .

2 Ukitu , eta, gero, ▤.

3 Hautatu **Reiniciar** aukeratutako kanala berrezartzeko, edo **Restablecer todo** kanal guztiak berrezartzeko. Kanal guztiak hasierako maiztasunera itzuliko dira (87,5 Mhz)

## Irratia entzutea

1 Ukitu , eta, gero, .

2 Ukitu eta, ondoren, ukitu entzun nahi duzun katearen kanal-zenbakia.

**IRADOKIZUNA:** Seinalea hobeto hartzeko, luzatu entzungailuen kablea, irrati-antena baten modukoa baita.

Irrati-erreprodukzioa minimiza dezakezu, ukituta.

## Egutegian gertaera bat gehitzea

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta gero, ukitu  eta hautatu . Aukeratu **Calendario**.

2 Aukeratu gertaera gehitu nahi duzun data.

3 Ukitu , eta, gero, **Agregar nuevo evento.**

4 Ukitu **Categoría,** eta, ondoren, hautatu **Cita, Aniversario** edo **Cumpleaños.** Egiaztatu data, eta zehaztu zer ordutan nahi duzun gertaera hastea.

5 Hitzordu eta urteurrenetarako, adierazi, beheko data- eta ordu-laukietan, zer egunetan eta zer ordutan amaitzen den gertaera.

6 Gertaerari gai bat edo ohar bat gehitu nahi izanez gero, ukitu **Nota** eta sartu; ondoren, hautatu **Guardar.**

7 Zehaztu **Alarma y Repetición.**

8 Hautatu **Guardar** eta egutegian gordeko da gertaera. Kurtsore karratu batek gertaerei dagozkien egunak markatuko ditu, eta gertaera hasten den orduan txirrin batek joko du, zure denbora antolatu ahal izateko.

**IRADOKIZUNA:** Zure oporrak egutegian zehaztu ditzakezu. Ukitu opor-egun bakoitzari dagokion lekuan, banan bana. Ondoren, ukitu  eta hautatu **Definir vacaciones.**

## Egutegiaren ikuspegi lehenetsia aldatzea

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta gero, ukitu  eta hautatu . Hautatu **Configuración.**

2 Ukitu **Ajustes del calendario** eta hautatu **Vista mensual** edo **Vista semanal.**

3 Zehaztu **la semana empieza en.**

4 Ukitu **Guardar,** hautaketa berresteko.

## Elementu bat gehitzea zeregin-zerrendari

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta gero, ukitu  eta hautatu .

2 Hautatu **Tareas** eta ukitu **Agregar nuevo evento.**

3 Zehaztu zeregin-elementuaren data, gehitu oharrak eta hautatu lehentasun-maila: **Alto, Medio** edo **Bajo.**

4 Zereginen zerrenda gordetzeko, hautatu **Guardar.**

**IRADOKIZUNA:** elementua editatzeko, hura hautatu, eta, ondoren, ukitu etiketa eta sarrera. Berretsi aldaketak, **Guardar** hautatuta.

## Zeregin-elementu bat partekatzea

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta gero, ukitu eta hautatu . Hautatu **Tareas.**

2 Hautatu partekatu nahi duzun zeregin-elementua, eta, ondoren, ukitu .

3 Hautatu **Enviar. SMS, MMS, Email** edo **Bluetooth** bidez partekatu dezakezu zeregin-elementua.

**IRADOKIZUNA:** Segurtasun-kopiak egin ditzakezu, baita egutegia zure ordenagailuarekin sinkronizatu ere. Ikus PC Sync atala, 105. orrialdean.

## Ohar bat gehitzea

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta gero, ukitu eta hautatu . Hautatu **Nota.**

2 Ukitu **Añadir nueva nota.**

3 Idatzi oharra eta, ondoren, aukeratu **Guardar**.

4 **Memo** aplikazioa irekitzen duzunean, pantailan bistaratuko da oharra.

**IRADOKIZUNA:** Ohar bat edita dezakezu. Hautatu editatu nahi duzun oharra, eta sartu aldaketak.

## Data-bilatzailea erabiltzea

Data-bilatzailea tresna baliagarria da, egun-kopuru jakin baten buruan zein data dagoen kalkulatzeko. Adibidez,

Tresna bikaina da epeak kontrolatzeko.

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta gero, ukitu eta hautatu .

2 Hautatu **Busc. de fechas.**

3 **Desde** fitxan, zehaztu nahi duzun data.

4 **Después** fitxan, zehaztu egun-kopurua.

5 **Fecha límite** *(muga-data)* beherago azalduko da.

## Alarma bat ezartzea

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta gero, ukitu eta hautatu .

2 Ukitu **Añadir alarma.**

3 Idatzi alarmak zein ordutan jotzea nahi duzun eta ukitu **Guardar**.

4 Hautatu noiz nahi duzun alarmak jotzea: **Una vez, Diario, Lun - Vie, Lun - Sáb, Sáb - Dom, Excepto festivos edo Elegir día de la semana.**

Ikonoek aukeratutako asteguna adierazten dute.

5 Hautatu **Tipo de alarma,** alarma-mota aukeratzeko.

6 Soinuak hautatzeko, ukitu **Definir tono de alarma** eta, ondoren, **Sonidos predeterminados** karpeta edo **Grabaciones de voz** karpeta. Soinuak entzuteko, ukitu soinu hori, eta, ondoren, .

7 Erantsi ohar bat alarmari. Ukitu **Guardar**, oharra idatzitakoan.

8 Azkenik, zein maiztasunekin errepikatuko den zehaztu dezakezu: 5, 10, 20, 30 minutu, ordu 1 o desaktibatuta.

9 Behin alarma zehaztuta, ukitu **Guardar.**

**OHARRA :** Bost alarma ere konfigura ditzakezu.

**IRADOKIZUNA:** Alarma aktibatzeko, ukitu pizteko/itzaltzeko ikonoa (alarmaren eskuinaldean).

## Marrazki-panelarekin ohar bat gehitzea

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta gero, ukitu eta hautatu .

2 Ukitu **Añadir dibujos.**

3 Marraztu zure oharra ukipen-pantailaren LCDan, eta, ondoren, ukitu .

4 **Panel de dibujo** aplikazioa irekitzen duzunean, pantailan bistaratuko da oharra.

## Ahots-grabagailua

Erabili ahots-grabagailua, ahots- edo bestelako soinu-oharrak grabatzeko.

1 Ukitu , eta, gero, .

2 Ukitu eta, ondoren, ; **Ajustes** ataldean, aukeratu:

**Duración:** grabazioaren iraupena ezartzeko. Aukera hauek dituzu: **Sin límite, Tamaño del mensaje MMS** edo **1 minuto.**

**Calidad:** soinuaren kalitatea hauta dezakezu. Aukera hauek dituzu: Super fina, Fina edo Normal.

## Soinua edo ahotsa grabatzea

1 Ukitu , eta, gero, .

2 Ukitu .

3 Ukitu grabazioa hasteko.

4 Ukitu grabazioa amaitzeko.

5 Ukitu grabazioa entzuteko.




## Ahots-grabazioa bidaltzea

1 Behin grabazioa amaituta, ukitu .

2 Ukitu **Enviar vía** eta hautatu **Mensaje, Email** edo **Bluetooth.**

3 **Mensaje** edo **Email** hautatzen baduzu, grabazioa mezuari erantsiko zaio, eta ohi bezala idatzi eta bidali ahal izango duzu. Bluetootha hautatuz gero, Bluetootha aktibatzeko eskatuko dizu.

**OHARRA :** Behin grabazioa amaituta, ukitu eta hautatu **Enviar vía, Archivo, Eliminar, Usar como** (grabazioa dei-tonu gisa erabiltzeko), **Ajustes** edo **Ir a Mis sonidos.**

## Kalkulagailua erabiltzea

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta gero, ukitu  eta hautatu .
2 Hautatu **Calculadora.**
3 Ukitu zenbaki-teklak, zenbakiak adierazteko.
4 Kalkulu sinpleak egiteko, ukitu behar duzun funtzioa *(+, -, *, /)*, eta, ondoren, =.
5 Kalkulu konplexuagoak egiteko, ukitu , eta hautatu hauetako bat: **sin, cos, tan, log, ln, exp, sqrt, deg** edo **rad**.

## Unitate bat bihurtzea

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta gero, ukitu  eta hautatu .
2 Hautatu **Conversor**.
3 Hautatu **Moneda, Superficie, Peso, Longitud, Temperatura, Volumen** edo **Velocidad** bihurtu nahi duzun.
4 Puntu horretan, unitatea hautatu behar duzu, bai eta zer bihurketa zer baliotatik egin nahi duzun ere. Ondoren, zer unitatetara bihurtu nahi duzun hautatu behar duzu.
5 Dagokion balioa pantailan agertuko da.

## Kronometroa erabiltzea

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta gero, ukitu  eta hautatu .
2 Hautatu **Cronómetro**.
3 Ukitu **Inicio**, tenporizadorea abiarazteko.
4 Ukitu **Vuelta**, bira baten denbora gordetzeko.
5 Ukitu **Parar**, tenporizadorea geldiarazteko.
6 Ukitu **Reanudar**, kronometroa gelditu duzun unean berrabiarazteko, edo ukitu **Reiniciar**, berriro kronometratzen hasteko.

## Munduko erlojuari hiri bat gehitzea

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta gero, ukitu  eta hautatu .
2 Hautatu **Reloj mundial**.
3 Ukitu , eta, ondoren, **Añadir ciudad**. Hasi idazten behar duzun hiriaren izena, eta pantailaren goiko aldean bistaratuko da.

PCa telefonoarekin sinkroniza dezakezu, informazio eta data garrantzitsuak bat etor daitezen, baina baita segurtasun-kopia gisa ere, lasai egon zaitezen.

## LG PC Suite ordenagailuan instalatzea

1. Pantaila inaktiboan, sakatu , hautatu  eta aukeratu .
2. Hautatu **Modo de conexión USB**, eta aukeratu hauetako bat.

   **PC suite biltegiratze masiboa**

   **Musika-sinkronizazioa**
3. Sartu emandako CDa PCan. Sakatu pantailan agertuko den **LG PC Suite Installer** aplikazioan.
4. Hautatu instalatzailea zer hizkuntzatan exekutatu nahi duzun, eta sakatu **OK**.
5. Jarraitu pantailako jarraibideei, LG PC Suite Installer-en laguntzailea osatzeko.
6. Instalazioa osatutakoan, LG PC Suite-ren ikonoa mahaigainean agertuko da.

## Telefonoa eta PCa konektatzea

1. Konektatu USB kablea telenofora eta PCra.
2. Egin klik bikoitza mahaigaineko **LG PC Suite**-ren ikonoan.
3. Sakatu **Asistente para conexión**, eta, ondoren, **USB.**
4. Sakatu **Siguiente**; ondoren, **Siguiente** berriz; eta, azkenik, **Finalizar.** Telefonoa eta PCa konektatuta egongo dira.





## Segurtasun-kopiak egitea eta telefonoaren informazioa berrezartzea

1. Konektatu telefonoa PCra, lehen deskribatu bezala.
2. Sakatu **Copia de seguridad**-en ikonoa, eta hautatu **Copia de seguridad** edo **Restaurar**.
3. Markatu segurtasun-kopia zer edukitatik egin edo berreskuratu nahi duzun. Hautatu zer kokalekutan gorde nahi duzun informazioaren segurtasun-kopia edo informazioa nondik berreskuratu nahi duzun. Sakatu **OK**.
4. Informazioaren segurtasun-kopia bat egingo edo berreskuratuko da.

## Telefonoaren fitxategiak ikustea PCan

1. Konektatu telefonoa PCra, lehen deskribatu bezala.
2. Sakatu **Contenido**-ren ikonoa.
3. Telefonoan gorde dituzun dokumentu, Flash eduki, irudi, soinu eta bideo guztiak pantailan bistaratuko dira, LG Phone karpetan.

**IRADOKIZUNA:** telefonoaren edukiak PCan bistaratzea lagungarria da fitxategiak eta dokumentuak antolatzeko eta behar ez duzun edukia kentzeko.

## Kontaktuak sinkronizatzea

1. Konektatu telefonoa PCra.
2. Sakatu **Contactos**-en ikonoa.
3. SIM txartelean eta telefonoan gordetako kontaktu guztiak inportatuko eta bistaratuko ditu PCak.
4. Sakatu **Archivo**, hautatu **Guardar**. Puntu horretan, kontaktuak non gorde hauta dezakezu.



ANTOLAKUNTZA-EZAUGARRIAK

**OHARRA:** SIM txartelean gordetako kontaktuen segurtasun-kopia egiteko, sakatu SIM txartelaren karpeta (PCaren pantailaren ezkerraldean dago).

Hautatu **Editar**, pantailaren goialdean, eta, ondoren, aukeratu **Seleccionar todo**. Sakatu kontakutak saguaren eskuineko botoiaz, eta hautatu **Copiar a contacto**. Ondoren, sakatu **Teléfono** karpeta, pantailaren ezkerraldean. Zenbaki guztiak agertuko dira.

## Mezuak sinkronizatzea

1. Konektatu telefonoa PCra.
2. Sakatu **Mensajes**-en ikonoa.
3. PCko eta telefonoko mezu guztiak karpetatan bistaratuko dira pantailan.
4. Erabili pantailaren goialdeko tresna-barra, mezuak editatzeko eta berrantolatzeko.

## Telefonoa erabiltzea biltegiratze masiboko gailu gisa

Biltegiratze masiborako gailu gisa erabil daiteke telefonoa.

1. Deskonektatu telefonoa PCtik.
2. Pantaila inaktiboan, hautatu , eta, gero, ukitu .
3. Hautatu , eta, ondoren, **Modo de conexión USB**.
4. Ukitu **Almacenamiento masivo**.
5. Konektatu telefonoa PCra. Mezu hau bistaratuko da: **Conect. como Almac. Masivo.**
6. Telefonoko fitxategi guztiak PCko disko gogorraren unitatean gordeko dira automatikoki.

**OHARRA:** biltegiratze masiboari ekiteko, telefonoak PCra konektatuta egon behar du.

## Telefonoa erabiltzea musika sinkronizatzeko gailu gisa

Musika sinkronizatzeko gailu gisa erabil daiteke telefonoa, eta, hala, musika-fitxategiak bakarrik sinkronizatuko ditu. Windows Media Player 10/11 erabiliz sinkroniza daiteke musika, eta bateragarria da bai telefonoaren memoriarekin, bai kanpoko memoria-txartelekin.

1. Deskonektatu telefonoa PCtik.
2. Pantaila inaktiboan, hautatu , eta, gero, ukitu .
3. Hautatu , eta, ondoren, **Modo de conexión USB**.
4. Ukitu **Sincronizar música**.
5. Konektatu telefonoa PCra. Mezu hau agertuko da telefonoan: **Conectando con sincronización de música**... eta, ondoren, **Desconecte el cable para detener la sincronización de música.**

## Arakatzailea

**Nabigatzaileak** joko, musika, albiste, kirol, entretenimendu eta abarrez osaturiko mundu bizkor eta koloretsu batera eramaten du zuzenean telefonoa. Edonon zaudela eta edozertan ari zarela ere.

## Sarera sartzea

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta, gero, ukitu eta hautatu .
2 Zuzenean nabigatzailearen hasierako orrira joateko, hautatu **Inicio**. Halaber, **Introducir dirección** hauta dezakezu, eta nahi duzun URL helbidea idatzi. Ondoren, sakatu **Conectar.**

**OHARRA:** zerbitzu horretara konektatzeak eta edukia deskargatzeak kostu gehigarria dute. Galdetu datuak transmititzearen gastuak zure sare-hornitzaileari.

## Gogokoak gehitzea eta haietara sartzea

Webgune gogokoetara jotzeko sarbide sinple eta bizkorra izateko, markatzaileak gehitu eta web-orriak gorde ditzakezu.

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta, gero, ukitu eta hautatu .
2 Hautatu **Favoritos**. Gogokoen zerrenda (Favoritos) agertuko da pantailan.
3 Gogoko bat gehitzeko, hautatu , eta ukitu **Añadir nuevo**. Idatzi markatzailerako izen bat, eta, ondoren, URL helbidea.
4 Ukitu **Guardar**. Gogokoen zerrendan agertuko da gogokoa.
5 Gogokora sartzeko, ukitu gogokoa eta, ondoren, ukitu Conectar. Gogokora konektatuko da.



## RRS irakurgailua erabiltzea

Web-iturrien formatu-multzo bat da RSS (Really Simple Syndication), eta maiz eguneratzen diren edukiak —hala nola blogetarako sarrerak, albisteen titularrak eta podcast-ak— argitaratzeko erabiltzen da. Lotutako webgune baten edukiaren laburpena edo testu osoa izaten du RSS dokumentu batek (iturria, web-iturria edo kanala esaten zaio). RSSk bere webguneetako edukietara automatikoki sartzeko aukera ematen die erabiltzaileei, modu errazean eta haietara eskuz sartu beharrik gabe.

Erabiltzaileak, iturri batean harpidetzeko, iturriaren esteka sartu behar du irakurgailuan, edo, bestela, harpidetze-prozesua abiarazteko nabigatzailearen RSSaren ikonoa sakatu. Aldian behin, erabiltzaileak harpidetutako iturrien eduki-eguneratzeak begiratzen eta eguneratzen ditu irakurgailuak.

## Orri bat gordetzea

1 Sartu zuk nahi duzun web-orrira, gorago deskribatu den bezala.
2 Ukitu , eta hautatu **Guardar esta página**.
3 Orrirako, idatzi erraz ezagutzeko moduko izen bat.
4 Ukitu **Guardar.**

**IRADOKIZUNA:** Halaber, menu horren bidez, gordetako orrien izenburuak editatu ahal izango dituzu, pantailako oharra babestu edo hari babesa kendu, eta gordetako orriak ezabatu.

## Gordetako web-orri batera sartzea

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta, gero, ukitu  eta hautatu .

2 Hautatu **Páginas guardadas**.

3 Hautatu zuk nahi duzun orria, eta ireki egingo da.

## Nabigatzailearen historia ikustea

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta, gero, ukitu  eta hautatu .

Hautatu **Historial**.

2 Berriki sartu zaren web-orrien izenburuen zerrenda agertuko da. Orri horietako batera sartzeko, hautatu orri hori.

## Web-nabigatzailearen doikuntzak aldatzea

1 Pantaila inaktiboan, hautatu , eta, gero, ukitu  eta hautatu .

Hautatu **Configuración**.

2 Hauek edita ditzakezu: **Perfiles, Ajustes de apariencia, Caché, Cookies, Seguridad**. Bestela, doikuntza guztiak berrezarri nahi badituzu, hautatu **Reiniciar configuración**.

## Telefonoa modem gisa erabiltzea

KP500 PC baterako modem gisa ere erabil daiteke; zure posta elektronikorako eta Interneterako sarbidea emango dizu kable bidez konektatu ezin zarenean ere. USB-kablea ere erabil dezakezu. **USB-kablea erabiltzen baduzu:**

1 Egiaztatu LG PC Suite instalatuta duzula zure PCan.

2 Konektatu KP500 PCra USB kablearein, eta hasieratu LG PC Suite softwarea.

3 Ekipoan, egin klik **Internet Kit**-en. Gero, sakatu **Nuevo** botoia, eta hautatu **Módem.**

4 Aukeratu **Módem USB móvil LG** eta hautatu OK. Pantailan bistaratuko da hori.

5 Idatzi Intenetera konektatu daitekeen profilaren izena, eta gorde ezarpen horiek.

6 Sortutako profila ekipoaren pantailan bistaratuko da. Hautatu, eta, ondoren, sakatu **Conectar**.

Horrela, ekipoa KP500 telefonoaren bidez konektatuko da.

**OHARRA :** LG PC Suite-rekin sinkronizatzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus orrialdea.

**Bluetootha erabiltzen baduzu:**

1 Egiaztatu Bluetootha **aktibatuta** eta **ikusteko moduan** dagoela, bai PCan, bai KP500en.

2 Lotu PCa eta KP500 konexioa ezartzean pasahitza eskatzeko.

3 Erabili **konexiorako laguntzailea** LG PC Suiten Bluetooth konexio aktibo bat sortzeko.

4 Ekipoan, egin klik **Internet Kit**-en.

Gero, sakatu **Nuevo** botoia.

5 Aukeratu **Módem USB móvil LG** eta hautatu **OK**. Pantailan bistaratuko da hori.

6 Idatzi Intenetera konektatu daitekeen profilaren izena, eta gorde ezarpen horiek.

7 Sortutako profila ekipoaren pantailan bistaratuko da. Hautatu, eta, ondoren, sakatu **Conectar**.

Horrela, ekipoa KP500 telefonoaren bidez konektatuko da.

**OHARRA :** Bluetoothari buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus 121. orrialdea.





KP500 modeloa pertsonalizatzeko doikuntzak alda ditzakezu karpeta honetan.

**OHARRA:** deien doikuntzari buruz informazio gehiago nahi izanez gero, ikus 30. orrialdea.

## Zure profilak pertsonalizatzea

Pantaila inaktiboan, berehala alda dezakezu zure profila. Ukitu egoeraren laburpen-barra (goialdean), eta, ondoren, ukitu profilaren barra.

Doikuntzen menuarekin, profil bakoitzaren konfigurazioa pertsonalizatu dezakezu.

1 Sakatu eta, ondoren, hautatu .

2 Ukitu **Perfiles** eta, ondoren, hautatu editatu nahi duzun profila.

3 Zerrendako alerta-soinu eta aukera guztiak alda ditzakezu, baita **Tono de llamada** eta beste doikuntza batzuk ere: **Volumen, Alertas de mensaje,** eta abar.

## Pantailaren doikuntzak aldatzea

1 Sakatu eta, ondoren, hautatu .

2 Ukitu , eta, gero, funtzio hauetako bat hautatu:

**Fondo de pantalla:** pantaila inaktiboaren gaia aukeratzeko.

**Menu nagusia:** menu nagusiaren estiloa hautatzeko.

**Marcación:** zenbakiaren tamaina eta kolorea doitzeko.

**Iturria:** letra-tamaina eta -estiloa doitzeko.

**Atzeko argia:** atzeko argia piztuta zenbat denboran egongo den aukeratzeko.

**OHARRA:** atzeko argia zenbat eta denbora gehiagoz egon piztuta, orduan eta bateria-energia gehiago erabiliko da, eta litekeena da telefonoa maizago kargatu behar izatea.

**Distira:** pantailaren distira doitzeko.

**Saludo inicial:** hasierako agurra aktibatu, desaktibatu edo betetzeko aukera ematen du.

**Inicio/Apagado:** hasiera/amaiera pantailaren gaia hautatzeko.

2 Sakatu **Guardar** doikuntzak gordetzeko.

## Telefonoaren doikuntzak aldatzea

Gozatu KP500 telefonoa zure estilora egokitzeak ematen dizun askatasunaz.

**IRADOKIZUNA:** Aukera-zerrenda batean mugitzeko, ukitu ikusten den azken elementua, eta lerratu pantailan atzamarra gorantz. Zerrenda gora joango da, elementu gehiago ikus daitezen.

1 Sakatu eta, ondoren, hautatu .

2 Ukitu , eta, gero, hautatu hurrengo zerrendako aukeretako bat.

**Fecha y Hora:** aukera ematen du data eta ordua aldatzeko edo ordua automatikoki eguneratu dadin aukeratzeko, bidaia bat egiten duzunean edo udako ordutegia aldatzen denean.

**Energia aurreztea:** aukera ematen du **Activado** modua edo **Desactivado** modua txandakatzeko energia aurrezteko doikuntzak



**Idiomas:** KP500-aren pantailako hizkuntza aldatzeko aukera ematen du.

**Bloqueo teclado auto:** aukera ematen du teklatua automatikoki blokeatzeko, pantaila inaktibo dagoenean.

**Seguridad:** aukera ematen du segurtasun-doikuntzak konfiguratzeko, PIN kodeak eta telefonoaren blokeoa barne.

**Administrador de memoria:** Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus **Memoria-administratzailea erabiltzea,** 120. orrialdean.

**Reiniciar configuración:** doikuntza guztiak fabrikazioan lehenespenez egindako ezarpenetara itzultzeko aukera ematen du.

**Información del teléfono:** KP500 telefonoari buruzko informazio teknikoa ikusteko.

## Konektagarritasuneko doikuntzak aldatzea

Sare-operadoreak konfiguratu ditu konektagarritasuneko doikuntzak; hortaz, hasieratik erabil dezakezu zure telefono berria. Doikuntzak aldatu nahi izanez gero, erabili menu hau.

Ukitu , eta, gero, . Hautatu .

**Configuración de red Seleccionar red:**

**Automático** hautatu baduzu, KP500 telefonoak automatikoki bilatuko du sarea, eta terminala erregistratuko du hor. Zerbitzu eta kalitate hobea lortzeko aukera hau erabiltzea aholkatzen da.

**Manual** hautatuz gero, une honetan eskuragarri dauden sare guztiak bistaratzen dira, eta horietako bat hauta dezakezu erregistratzeko. Sarera erregistratzen ez bada, erabil daitezkeen sare guztiak berriro bistaratzen dira eta beste edozein hauta dezakezu erregistratzeko.

**OHARRA :** zure telefonoak eskuzko moduan aukeratutako sarea galtzen badu, mezua agertuko da pantaila inaktiboan, eskura dagoen sarea hautatzeko.

**Listas preferidas:** Sarea automatikoki bilatzen bada, konektatzeko sarea lehenetsi dezakezu. Aukera hauek ditu:

**Perfiles de Internet:** menu honek Interneteko profilak erakusten ditu. Opciones menuarekin, profil berriak sortu, ezabatu edo editatu ditzakezu. Herrialdearen arabera lehenespenez ezarri diren konfigurazioak, ordea, ezin dira ez editatu, ez ezabatu.

**Puntos de acceso:** sare-operadoreak gorde du, dagoeneko, informazio hori. Menu horrekin, sarbide-puntu berriak erantsi ditzakezu.

**Conexión de datos empaquetados**: hautatu zein unetan konektatu behar duen gailuak sarera, datu-paketeak eskuratzeko.

**Modo de conexión USB:** hautatu Servicio de datos eta sinkronizatu KP500 modeloa, LGPC erabiliz, telefonotik fitxategiak kopiatzeko. Sinkronizazioari buruz gehiago jakiteko, ikus 105. orrialdea.

Sinkronizatzeko funtzioa Windows Media Playerekin erabiltzen baduzu, hautatu **Sincronizar música en este menú. Sincronizar música** musika-edukietarako da bakarrik.



**Servicio de sincronización:** zerbitzaria sinkronizatzeko funtzioak aukera ematen du, haririk gabeko sare baten bidez, telefonoaren datuak eta zerbitzariarenak sinkronizatzeko, hala nola kontaktu, ordutegi, zeregin eta oharrei buruzko informazioa.

**Ajustes de Streaming:** sare-operadoreak gorde du, dagoeneko, informazio hori. Aldaketarik egin nahi izanez gero, edita dezakezu.

## Memoria-administratzailea erabiltzea

KP500 telefonoak hiru memoria ditu: telefonoa, USIM txartela eta kanpoko memoria-txartela (memoria-txartela bereiz eskuratu beharko duzu, agian).

Memoria bakoitza nola erabili eta zenbat toki dagoen erabilgarri jakiteko, memoriaren administratzailea erabil dezakezu. Ukitu , eta, gero, .

Hautatu eta, ondoren, **Administrador de memoria.**

**Memoria común del teléfono:** irudiak, soinuak, bideoak, flashak, MMSak, mezu elektronikoak, Java aplikazioak eta abar gordetzeko KP500 telefonoak memorian zenbat toki duen ikusteko aukera ematen du.

**Memoria reservada del teléfono:** ikus zure telefonoak memorian duen tokia SMSak, kontaktuak, egutegia, zeregin-zerrenda, oharrak, alarma, deien historia, gogokoenak, eta beste zenbait elementu gordetzeko.

**Memoria SIM:** Ikusi zure SIM txartelaren memorian duzun lekua.

**Kanpoko memoria:** aukera ematen du ikusteko kanpoko memoria-txartelean zenbat toki dagoen (bereiz erosi beharko duzu, agian).

**Ajuste de almacenamiento principal:** hautatu elementuak gorde nahi duzun kokapena.

> **IRADOKIZUNA:** Memoria-txartela sartzeari buruzko informzio gehiago nahi izanez gero, ikus 14. orrialdea.

## Fitxategiak bidaltzea eta jasotzea Bluetooth bidez

Bluetooth modu bikaina da fitxategiak bidali eta jasotzeko, ez baitu haririk behar; gainera, konexioa azkarra eta erraza da. Deiak egin eta jasotzeko, Bluetooth entzungailuak erabil ditzakezu.

**Fitxategi bat bidaltzeko:**

1. Ireki bidali nahi duzun fitxategia (normalean musika-, bideo- edo argazki-fitxategiak bidaliko dituzu).
2. Hautatu **Enviar.** Hautatu **Bluetootha.**
3. Bluetooth dagoeneko lotua baduzu, KP500-ek automatikoki beste Bluetooth batzuk bilatuko ditu. Lotua ez badago, KP500-ek bere irismen-eremuko gailuak bilatuko ditu, Bluetootha aktibatua dutenak.
4. Hautatu zein gailutara bidali nahi duzun fitxategia, eta ukitu **Selec.**
5. Fitxategia bidali egingo da.

> **IRADOKIZUNA:** Begiratu aurrerapen-barran, fitxategia bidaltzen dela ziurtatzeko.

**Fitxategi bat jasotzeko**

1. Fitxategiak jasotzeko, Bluetoothak **Activado** eta **Visible** moduan egon behar du. Informazio gehiago eskuratzeko, ikus Bluetootharen doikuntzak aldatzea (eskuinaldean).
2. Mezu batek bidaltzailearen fitxategia onartzen duzun galdetuko dizu. Ukitu **Sí**, fitxategia jasotzeko.
3. Fitxategia non gorde den ikusiko duzu, eta fitxategia erabiltzeko bi aukera izango dituzu: **Ver** edo **Usar como tapiz.** Fitxategiak Album multimedian gordeko dira, dagokion karpetan.

**Cambiar los ajustes de Bluetooth:**

1. Ukitu , eta hautatu .
2. Hautatu , eta, gero, ukitu eta hautatu **Ajustes**. Aldaketak egiteko:

   **Visibilidad del dispositivo:** zenbait aukera eskaintzen ditu: **Visible, Oculto** edo **Visible 1 min.**

   **Nombre del dispositivo:** KP500 gailuaren izena idazteko aukera ematen du.

   **Servicios admitidos:** Bluetootha hainbat zerbitzurekin batera erabiltzeko modua aukeratzen uzten du. Ikus **Telefonoa modem gisa erabiltzea** 113. orrialdean edo **Usar auriculares Bluetooth** 123. orrialdean.

   **Modo SIM remota:** aktibatu edo desaktibatzeko.

   **Mi dirección:** Bluetooth gailuaren helbidea ikusteko.

## Telefonoa lotzea beste Bluetooth gailu batekin

KP500 modeloa beste gailu batekin lotuz gero, pasahitz baten bidez babestutako konexioa konfiguratu ahal izango duzu. Horrek esan nahi du lotura seguruagoa dela.

1. Egiaztatu Bluetootha **Activado** eta **Visible** moduan dagoela. **Configuración** menuan, ikusgaitasuna alda dezakezu.

# Ezarpenak

2 Ukitu **Buscar.**

3 KP500 modeloak beste gailu batzuk bilatuko ditu. Bilaketa amaituta, **Actualizar** aukera bistaratuko da pantailan.

4 Hautatu zerin gailurekin lotu nahi duzun, eta idatzi pasahitza; ondoren, ukitu **OK**.

5 Telefonoa beste gailuarekin lotuko da; gailu horretan pasahitz berak agertu behar du.

6 Pasahitz bidez babestutako Bluetooth konexioa prest dago.

## Bluetooth entzungailuak erabiltzea

1 Egiaztatu Bluetootha **Activado** eta **Visible** moduan dagoela.

2 Bete entzungailuekin batera zetozen jarraibideak, gailuak lotzeko.

3 Ukitu **Preguntar antes de conectar** edo **Conectar siempre** eta, ondoren, Conectar ahora funtzioan, ukitu **Sí**. KP500 telefonoa automatikoki entzungailuen profilera aldatuko da.





# Osagarriak

KP500ekin batera, osagarri ematen dira:

**Kargagailua**



**Datu-kablea eta CDa**



KP500 eta PCa konektatzeko eta sinkronizatzeko.

**Bateria**



**Entzungailu estereofonikoak**



**Erabiltzailearen eskuliburua**

KP500i buruzko informazio gehigarria.

**babes-geruza**



**OHARRA :**

- Erabili beti LGren jatorrizko osagarriak.
- Hori egiten ez baduzu, bermea bertan behera gera daiteke.
- Gailuak aldatu egin daitezke eremuaren arabera. Galdetu gure agenteari edo tokiko zerbitzuari informazio gehiago eskuratzkeo.

⚠ **OHARRA:**

Ukipen-pantailari babes-geruza kendu ez bazaio, baliteke hain sentikorra ez izatea.

# Sare-zerbitzuak

Eskuliburu honetan deskribatzen den haririk gabeko telefonoa sare hauetan erabil daiteke: GSM 900, DCS 1800, GSM 850 eta PCS1900.

Eskuliburu honetan sartu diren zenbait funtziori sare-zerbitzu deitzen zaie. Haririk gabeko zerbitzuen hornitzailearekin hitzartu daitezkeen zerbitzu bereziak dira. Sare-zerbitzu horietako edozein erabili ahal izateko, izena eman beharko duzu, eta erabiltzeko jarraibideak jaso, zure zerbitzu-hornitzailearen bidez.

# Datu teknikoak

## Orokorra

Produtuaren izena: KP500 Sistema: GSM 900 / DCS 1800 / GSM 850/ PCS 1900

## Giro-tenperaturak

Max.: +55 °C (deskargatzen)

+45 °C (kargatzen)

Min: -10°C

# Adostasun-deklarazioa

LG Electronics

**Suppliers Details**

Name

LG Electronics Inc

Address

LG Twin Tower 20,Yeouido-dong, Yeongdeungpo-gu Seoul, Korea 150-721

**Product Details**

Product Name

E-GSM 900 / DCS 1800 / GSM 850 / PCS 1900 Quad Band Terminal Equipment

Model Name

KP500, KP500Q, KP570, KP570Q

Trade Name

LG

CE 0168

**Applicable Standards Details**

R&TTE Directive 1999/5/EC

EN 301 489-01 **v1.6.1** / EN 301 489-07 **v1.3.1** / EN 301 489-17 **v.1.2.1**
EN 60950-1 : 2001
EN 50360/EN 50361 : 2001
EN 301 511 V9.0.2
EN 300 328 V 1.7.1

**Supplementary Information**

The conformity to above standards is verified by the following Notified Body(BABT)

BABT, Balfour House, Churchfield Road, Walton-on-Thames, Surrey, KT12 2TD, United Kingdom
Notified Body Identification Number : 0168

**Declaration**

I hereby declare under our sole responsibility that the product mentioned above to which this declaration relates complies with the above mentioned standards and Directives

| Name | Issued Date |
| --- | --- |
| Seung Hyoun, Ji / Director | 1, September, 2008 |

European Standard Center
LG Electronics Logistics and Services B.V.
Veluwezoom 15, 1327 AE Almere, The Netherlands
Tel : +31 - 36- 547 - 8940, Fax : +31 - 36 - 547 - 8794
e-mail : jacob @ lge.com

Signature of representative

Irakurri jarraibide erraz hauek. Jarraibide hauei jaramonik ez egitea arriskutsua edo legez kanpokoa izan daiteke.

## Irrati-maiztasuneko energiarekiko esposizioa

Irrati-uhinen eraginpean egotea eta SAR (Specific Absorption Rate, absortzio espezifikoaren tasa). KP500 telefono mugikorra irrati-uhinen eraginpean egoteari buruzko segurtasun-araudia betetzeko moduan diseinatu da. Arau horiek pertsona ororen –adina eta osasun-egoera gorabehera– segurtasuna bermatzeko diseinatutako segurtasun-tarteak dituzten jarraibide zientifikoetan oinarritzen dira.

- Irrati-uhinekiko esposizioaren jarraibideen neurketa-unitatea absortzio espezifikoaren tasa edo SAR da. Telefonoan erabiltzen diren frekuentzia-banda guztietan ziurtatutako potentzia-maila altuenean transmititzen ari dela egiten zaizkio SARen probak, metodo estandarra erabiliz.
- LG telefono-modelo batetik bestera SAR mailan aldea izan badaiteke ere, telefono guztiak irrati-uhinekiko esposizioari dagozkion zuzentarau garrantzitsuetara egokitzeko diseinatu dira.
- ICNIRP (International Commission on Non-Ionizing Radiation Protection) Erradiazio ez-ionizatzaileetatik Babesteko Nazioarteko Batzordeak gomendatzen du SAR balio-muga hau izatea: 2 W/kg, ehunaren hamar (10) gramoko.
- Telefono-modelo hau belarrian erabiltzeko erregistratu den SAR mailarik altuena 0,407 W/kg (10 g) da, eta gorputzaren kontra garraiatzeko baliorik altuena, berriz, 0,940 W/kg (10 g).
- IEEE (Institute of Electrical and Electronics Engineers) Ingeniari Elektrikoen eta Elektronikoen Institutuak gomendatutako SAR muga-balioak oinarri hartu dituzten herrialdeetan/eskualdeetan bizi direnentzako SAR datuei buruzko informazioa: 1,18 W/kg ehun gramo bakoitzeko (1).

## Produktua zaintzea eta mantentze-lanak

**⚠ OHARRA**

Telefono-modelo honetan erabiltzeko onartu diren bateriak, kargagailuak eta osagarriak erabili bakarrik. Bestela, telefonoari dagozkion onarpen edo bermeak baliorik gabe gera daitezke, eta hori arriskutsua izan daiteke.

- Ez desmuntatu gailua. Konpondu behar bada, eraman gaitutako zerbitzu tekniko batera.
- Ekipoa tresna elektrikoetatik (telebista, irratia edota ordenagailu pertsonala) urrun eduki.
- Ez utzi ekipoa leku beroetan (erradiadore edo labeen ondoan).
- Ez dadila eror.
- Ez utzi telefonoa bibrazio mekanikoen mende. Ez kolpatu.
- Itzali telefonoa araudi bereziek hala eskatzen duten lekuetan. Ez erabili telefonoa ospitaleetan, adibidez, tresna mediko sentikorrei eragin baitiezaieke.
- Telefonoa kargatzen ari denean, ez ukitu telefonoa eskuak bustiak badituzu. Deskarga elektrikoa eragin edo telefonoa honda dezakezu.

- Ez kargatu telefonoa material sukoia hurbil badago; berotu, eta sute bat eragin dezake.
- Garbitu telefonoaren kanpoaldea zapi lehor batekin (ez erabili bentzenorik, disolbatzailerik, alkoholik eta antzeko solbenterik).
- Ez kargatu telefonoa gainazal barrubigunen gainean.
- Behar bezala aireztatutako eremuetan kargatu behar da telefonoa.
- Ez utzi telefonoa ke edo hauts asko dagoen tokietan.
- Urrundu telefonoa kreditu-txarteletatik edo garraio-txarteletatik, horien banda magnetikoaren informazioa honda baitezake.
- Ez kolpatu pantaila objektu puntadunekin, telefonoa honda daiteke.
- Ez busti telefonoa eta ez utzi toki hezeetan.
- Osagarriak kontuz erabili (entzungailuak, adibidez). Ez ukitu antena beharrezkoa ez bada.

## Telefonoaren funtzionamendu eraginkorra

### Gailu elektronikoak

Telefono mugikor guztiek sor ditzakete haien errendimenduari eragin diezaieketen interferentziak.

- Ez erabili telefonoa ekipo medikoetatik gertu, baimenik eskatu gabe. Ez ipini telefonoa taupada-markagailuaren gainean, alegia, ez ipini alkandoraren poltsikoan, adibidez.
- Telefono mugikorrek zenbait audiofono honda ditzakete.
- Telebista, irrati, ordenagailu eta abarretan ere interferentzia txikiak eragin ditzakete.

## Bide-segurtasuna

Gidatu bitartean telefono mugikorrak erabiltzeari buruzko legeei eta tokiko arauei kasu egin.

- Ez erabili telefono mugikorra gidatzen ari zarenean.
- Gidatu arreta osoz.
- Erabili esku libreko gailu bat, baldin baduzu.
- Deiak egin edo deiei erantzun baino lehen, errepidetik irten eta aparkatu, errepidearen kondizioen arabera.
- Irrati-maiztasunak ibilgailuaren sistema elektroniko batzuetan eragin dezake (autoaren irratiak edo segurtasun-ekipoak).
- Ibilgailuak airbag-a badu, ez oztoporik jarri haririk gabeko ekipo eramangarriekin edo finkoekin. Horien ondorioz, airbag-ak huts egin dezake, eta larri zauritu zaitezke.
- Kalean zaudela musika entzuten baduzu, ziurtatu bolumenaren intentsitatea arrazoizkoa dela, zure inguruan gertatzen denaz jabetu zaitezen. Oso garrantzitsua da, batik bat, zirkulazio-bideetatik hurbil.

## Saihestu belarrietako lesioak

Bolumen altuko soinuak entzuten denbora askoz egonez gero, baliteke zure belarriek kalteak jasatea. Horregatik, telefonoa belarrietatik hurbil ez piztea eta itzaltzea gomendatzen dizugu. Horrez gain, musikaren eta deien bolumena arrazoizko mailan ezartzea gomendatzen dizugu.

## Beirazko piezak

Zure telefono mugikorraren pieza batzuk beirazkoak dira. Beira hori hautsi egin daiteke produktua gainazal gogor batera erortzen bada edo kolpe handia hartzen badu. Beira apurtzen bada, ez ukitu eta

ez saiatu kentzen. Ez erabili zure telefonoa hornitzaile baimendu batek kristala ordeztu arte.

## Lehergaiak

Ez erabili telefonoa lehergaiekin lanean ari diren tokietan. Errespetatu murrizketak eta jarraitu arauei.

## Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

- Ez erabili telefonoa gasolina-zerbitzuguneetan.
- Ez erabili produktu kimiko edo erregaietatik hurbil.
- Ez garraiatu edo ez gorde lehergai, likido edo gas sukoirik telefono mugikorra eta haren osagarriak dauden ibilgailuko konpartimentuan.

## Hegazkinetan

Haririk gabeko gailuek interferentziak sor ditzakete hegazkinetan.

- Itzali telefono mugikorra hegazkinean sartu aurretik.
- Ez erabili lurrean tripulazioaren baimenik gabe.

## Haurrak

Ez utzi telefonoa haur txikien eskueran. Toki seguruetan gorde. Pieza txikiak ditu, eta, irensten badituzte, itotzeko arriskua dute.

## Larrialdi-deiak

Beharbada larrialdi-deiak ezingo dira sare mugikor guztietan erabili. Beraz, ezin duzu telefonoaren mende bakarrik egon larrialdietako deiak egiteko. Zure inguruko zerbitzuen hornitzaileari galdetu.



## Bateriari buruzko informazioa eta mantentze-lanak

- Bateriak ez du zertan erabat deskargatuta egon berriz kargatzeko. Beste bateria-sistemetan ez bezala, ez dago bateriaren errendimenduari kalte egin diezaiokeen memoria-efekturik.
- Erabili bakarrik LGren bateriak eta kargagailuak. LGren kargagailuak bateriaren bizitza ahalik eta gehiena luzatzeko diseinatu dira.
- Ez desmuntatu bateria, eta ez egin zirkuitulaburrik.
- Garbi eduki bateriaren kontaktu metalikoak.
- Aldatu bateria, behar bezala ez dabilenean.

  Bateria ehunka aldiz karga daiteke, hondatu arte.
- Aspaldian erabili ez baduzu, bateria kargatu egin behar duzu, funtzionaltasuna ahalik eta handiena izan dadin.
- Ez jarri bateria-kargagailua eguzkitan, eta ez erabili ingurune hezeetan (komunean, adibidez).
- Ez utzi bateria toki hotz edo beroetan, errendimendua txikitu daiteke.
- Bateria desegoki batekin ordeztuz gero, lehertzeko arriskua dago.
- Bete fabrikatzailearen jarraibideak bateriak ezabatzeko garaian. Ahal bada, birziklatu. Ez bota bateriak etxeko zakarrontzira.
- Bateria ordeztu behar baduzu, eraman hornitzailearengana edo hurbilen duzun LG Electronics-en zerbitzu-puntu baimendura, laguntza jasotzeko.
- Desentxufatu beti kargagailua korronte-hartunetik telefonoa kargatu ondoren, kargagailuak energia alferrik kontsumi ez dezan.

# Arazoak konpontzea

Kapitulu honetan, telefonoa erabiltzean sor daitezkeen zenbait arazo deskribatzen dira. Arazo batzuk konpontzeko zerbitzu-hornitzaileari deitu beharko diozu, baina, gehienetan, zeuk konpon ditzakezu.

| Mezua | Zergatia | Konponbidea |
|---|---|---|
| Errorea SIM txartelean | Telefonoan ez dago SIM txartelik, edo gaizki sartuta dago. | Egiazta ezazu SIM txartela behar bezala sartuta dagoen. |
| Ez dago sarerako konexiorik | Seinale ahula.<br>GSM saretik kanpo zaude | Jarri leiho batetik edo espazio ireki batetik hurbil. Egiaztatu zerbitzu-hornitzailearen estaldura. |
| Kodeak ez datoz bat | Segurtasun-kode bat aldatu nahi baduzu, kode berria berretsi behar duzu; horretarako, berriro sartu behar duzu. Sartu dituzun bi kodeak ez datoz bat. | Jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin. |
| Ezin da funtzioa konfiguratu | Zerbitzu-hornitzaileak ez du onartzen, edo erregistratu egin behar da | Jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin. |
| Ezin da deirik egin | Gaizki markatu duzu<br>SIM txartel berria / Gastu-mugara iritsi zara | Sare berria ez dago baimenduta. Egiaztatu muga berriak.<br>Jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin, edo ezarri berriro muga PIN 2<br>kodea erabilita. |





| Mezua | Zergatia | Konponbidea |
|---|---|---|
| Ezin da telefonoa piztu. | Aktibatzeko eta desaktibatzeko tekla oso azkar sakatu da | Sakatu aktibatzeko eta desaktibatzeko tekla bi segundoz, gutxienez. |
| | Bateria agortua | Kargatu bateria. Egiaztatu pantailako karga-adierazlea. |
| | Bateriaren kontaktuak zikinak daude. | Garbitu kontaktuak. |
| Errorea kargatzean | Bateria hustuta dago. | Kargatu bateria. |
| | Tenperatura onartutako tartetik kanpokoa da. | Egiaztatu tenperatura egokia dela, itxaron pixka bat, eta gero, kargatu berriro. |
| | Kontaktu-arazoak | Egiaztatu elikatze-iturria eta telefonoaren konexioa. Egiaztatu bateriaren kontaktuak eta garbitu, beharrezkoa bada. |
| | Elikatze elektrikorik ez | Sartu beste entxufe batean, edo egiaztatu hornidura elektrikorik dagoen. |
| | Kargagailu akastuna | Kargagailua berotzen ez bada, ordeztu. |
| | Okerreko kargagailua | LGren jatorrizko osagarriak soilik erabili. |
| | Bateria akastuna | Aldatu bateria. |
| Telefonoak sarea galtzen du | Seinalea ahulegia da | Automatikoki konektatzen da beste zerbitzu-hornitzaile batera. |
| Baimenik gabeko zenbakia | Markaketa finkoko funtzioa aktibatuta dago. | Egiaztatu doikuntzak. |

2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria

Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008